

ARKEOGAZTEKO ESTATUTUAK: HISTORIAURRE ETA GARAI HISTORIKOKO IKERTZAILE GAZTEEN ELKARTEA

I. TITULUA. IZENA ETA ELKARTEAREN ERREGIMENA

1. artikulua: Izena eta erregimen legala

1. ARKEOGAZTE: HISTORIAURRE ETA GARAI HISTORIKOKO IKERTZAILE GAZTEEN ELKARTEA izenaz, Vitoria-Gasteizen, irabazi asmorik gabeko elkarte osatzen da, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak eta ekainaren 22ko 7/2007 Legeak, Eusko Legebiltzarrak, Euskal Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluek diotenari jarraituz, baietsitakoa, ezarritakoarekin batetorritz.
2. Esandako Elkarte aipatutako Elkarte Legeen arabera gobernatuko da; Estatutu hauen arabera, Legearekin kontraesanak sortzen ez diren bitartean; gobernu organoek zilegiki onartutako akordioen arabera, Legea edota Estatutuen aurka jotzen ez duten bitartean, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako araudi-xedapen arabera, izaera gehigarria izango dutenak.
3. Elkarteak mugagabeko izaeraz eta irabazi asmorik gabe osatzen da, eta bakarrik Ezohiko Asanblada Orokorren akordioaren bitartez deuseztatuko da, IV. Kapituluaren edo edozein Legeetan aurreikusten diren arrazoiengatik.

II. TITULUA. HELBURUAK ETA EKINTZAK

2. artikulua: Helburuak

1. Elkartearen helburuak hurrengokoak dira:
 - a) Ikerketa historikoa bultzatzea, Historiaurre eta Garai Historikoko Arkeologiaren alorretan, batezere.
 - b) Ikertzaile gazteen arteko komunikazioa eta lankidetzaren sustatzea.
 - c) Ikertzaile gazteen irakaskuntza, ikerkuntza eta heziketa profesionala indartzea.
 - d) Ondare arkeologikoari buruzko ezagutza sustatzea eta hedapen, berreskurapen eta balioztatze ekintzak eragitea.
 - e) Historiaurreko eta Garai Historikoko Arkeologiako ikerketa emaitzak zabaltzea ikertzaile komunitatean eta gizartean zehar.
 - f) Historiaurreko eta Garai Historikoko Arkeologia ikertzaileen interesak eta profesionalki ekiteko askatasuna defendatzea.
 - g) Generoen arteko berdintasuna sustatzea.
 - h) Ikertzaile gazteen beste elkarteekin lankidetzaren bultzatzea.
 - i) Antzeko helburuak dituzten beste elkarte eta erakundeekin kooperatu aurrean aipatutako helburuak lortzeko.
2. Aipatutako helburuak lortzeko, ezarritako betebeharrak legalak errespetatuz, hurrengoko jarduerak eramango dira aurrera:
 - a) Izaera zientifikoko edo dibulgazio zientifikoko aldikako argitalpena izatea.
 - b) Edozein motatako eta izaerako bilera edo topaketa zientifikoak antolatzea, aldikakoak ala ez.

- c) Eztabaida eta dibulgazio mota guztietako jarduerak egitea, izaera publiko eta sozialekoak.
- d) Irakaskuntza, ikerkuntza eta heziketa profesionaleko Historiaurre eta Garai Historikoko Arkeologia ikastaroak antolatzea.
- e) Aztarnategi arkeologikoak, ondare interesa daukaten tokiak edo Elkarteko ikertzaile gazteentzat interesa daukaten edozein lekuak bisitatzeko irteerak egitea.
- f) Deialdi publikoak ikuskapena eta proiektuak antolatzea, Elkartearen helburuak lortzeko laguntzen duten diru-laguntzak lortzeko.

Aurreko atalean deskribatutako jardueren kontra jo gabe, Elkartek, bere helburuak lortzeko, hurrengoko ekintzak bete ditzake:

- Edozein motatako jarduera ekonomikoak aurrera eramatea, bere helburuak betetzeko edo bere helburuak betetzeko baliabideak lortzeko.
- Edozein motatako eta edozein tituluko ondasunak erostea eta izatea, baita edozein motatako ekintzak eta kontratuak izatea ere.
- Legearen edo bere Estatutuen arabera edozein ekintza aurrera eramatea.

III. TITULUA: HELBIDEA ETA LURRALDE ESPARRUA

3. artikulua: Helbidea

1. Elkarke honen behin-behineko helbidea, behin-betiko egoitza lortu arte, Arkeologia Materialen Tailer eta Biltegian (UPV-EHU) dago, Francisco Tomás y Valiente kalea, zenbakirik gabe, 01006, Vitoria-Gasteiz.
2. Elkarkeak beste edozein areto erabili ahal izango du Euskal Autonomi Erkidegoaren barnean, Asanblada Orokorra horrela baieztatzen duen bakoitzean.

4. artikulua: Lurralde esparrua

Elkartearen lurralde esparruak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) lurralde guztiak barne hartzen ditu.

IV. TITULUA. GOBERNU ETA ORDEZKARITZA ORGANOA

I. KAPITULUA. MOTAK ETA IZENA

5. artikulua: Motak eta oinarriak

1. Elkartearen gobernu eta kudeaketa hurrengoko organo kolegiatuen ardurapean egongo da:
 - Kideen Asanblada Orokorra, organo gorena gisa.
 - Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza organo kolegiatu iraunkor gisa.
2. Elkartearen barne antolaketa eta funtzionamendua demokratikoak eta aniztasunarekiko errespetu osoz izan beharko dira. Elkarteko oinarrizko zuzenbidearekin ados ez datozen paktuak, estatutu-xedapen eta akordio guztiak zentzu guztietan baliogabeak izango dira.

II. KAPITULUA. ASANBLADA OROKORRA

6. artikulua: Osaera

Asanblada Orokorra, kide guztiek osatutakoa, hauen borondatearen adierazpen organoa da.

7. artikulua: Konpetentziak

Asanblada Orokorraren eginkizunak dira:

- a) Elkartearen ekintza plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuen eta hurrengo urteko aurrekontuak aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea deuseztatzea.
- f) Presidente, idazkaria, diruzaina eta, egotekotan, gainontzeko gobernu organo kolegiatuetako edozein kide kargutik kentzea, baita hauek ikuskatzea eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarteekin federatzea edo konfederatzea, baita egitura hauek uztea.
- h) Ondare higiezinak eskuratzea edo besterentzea.
- i) Gobernu organoetako kideak saritzeko erabakia.
- j) Ohiko eta ezohiko kuotak finkatzea. Eginkizun hau Asanblada Orokorretik Zuzendaritza Batzordera transferitua izan daiteke, berariazko akordioaren bitartez.
- k) Kideen behin-betiko banaketarako akordioa.
- l) Beste organo sozialariez egokitutako gainontzeko edozein eginkizun.

8. artikulua. Bilkuramota

1. Asanblada Orokorra ohiko eta ezohiko bilkuretan bilduko da.
2. Asanblada Orokorra urtean behin, gutxienez, urteko lehenengo hiruhilabetekoaren barruan bildu beharko da, 7. artikuluan, a), b) eta c) puntutan zehaztutako akordioak erabakitzeke helburuarekin.
3. Asanblada Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duen bakoitzean bilduko da, bere ekimenagatik edo kideen %25ak eskatzen dutelako, bileraren zergatiak eta helburuak zehaztuz eta, edozein kasutan, hurrengoko gaiei buruz aritu eta erabakitzeke:
 - a) Estatutuen aldaketa.
 - b) Elkartearen deuseztapena.

9. artikulua: Deialdia

Asanblada Orokorrerako deialdiak idatziz egin beharko dira, bilerarako tokia, eguna eta ordua adieraziz, baita eztabaidatu beharreko gai guztiak zehazten dituen gai-zerrenda ere. Deialdia eta bileraren artean gutxienez hamabost egun igaro behar dute. Abisu berberean Asanblada Orokorrerako bigarren deialdirako data eta ordua iragarri daiteke, bien artean gutxienez ordu erdia igarotzen delarik.

10. artikulua: Etortze eta bozkatzeguoruma

1. Asanblada Orokorra, bai ohikoak, bai ezohikoak, bozkatzeko eskubidea daukaten kideen herena biltzen bada zilegiki osatutzat hartuko dira, lehenengo deialdian, eta bozkatzeko eskubidea daukaten kide kopurua aintzat hartu gabe, bigarren deialdian.
2. Asanblada Orokorreko akordioak bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo soilez hartuko dira, baiezko botoek ezezkoak gaintzen dituztenean. Hala ere, bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo osoa, hau da, baiezko botoek zilegiki emandakoen erdia gaintzen dutenean, beharrezkoa izango da hurrengoko erabakiak onartzeko:
 - a) Elkartaren deuseztapena.
 - b) Estatutuen aldaketa.
 - c) Ondasunen erabilera edo besterentzea.
 - d) Ordezkapen organoen kideak ordaintzea.

11. artikulua: Ordezkapena

Kideek Elkarteko beste edozein kideengan utzi dezakete beraien ordezkaritza, Asanblada Orokorrei dagokienez. Esandako ordezkapena idatziz emango da eta Asanblada Orokorreko Idazkariaren eskuetan egon behar du, gutxienez, bilera hasi baino 24 ordu lehenago. Elkartek helbidea duen hiri desberdinetan bizi diren kideek, postaz bidali dezakete aipaturako ordezkariarako dokumentua.

III. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA

12. artikulua. Osaera

1. Zuzendaritza Batzordea Elkartaren interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen ordezkari organoa da, Asanblada Orokorreko xedapen eta zuzendaritzak jarraituz. Elkarteko kideek bakarrik osatu dezakete ordezkari organoa.
2. Zuzendaritza Batzordea osatzen dute: Presidentea, Presidente ordekoa, Idazkaria, Diruzaina, lau Batzordekide
3. Zuzendaritza Batzordeko bileretara bidezko arrazoirik gabe bitan jarraian edo hirutan aldizka huts egitea, kargutik kentzea ekarriko du.

13. artikulua: Karguen aukeraketa

1. Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak Batzar Nagusiek aukeratuak izango dira eta bi urteko iraupena izango dute, berariazko baliogabetzeak eman ezik. Berrautaketa eman daiteke.
2. Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute ondorengo kasuetan:
 - a) Agintaldi garaia amaitzea.
 - b) Kargua uztea.
 - c) Elkartekide izateari uztea edo ezgaitasun egoeran egotea.
 - d) Batzar Nagusiak baliogabetua izatea Estatutu hauetako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera
 - e) Heriotza
3. Kargugabetzea a) atalaren kasuan ematen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren karguan jarraituko dute hurrengo Batzar Nagusia ospatu arte, non kargu berrien hautaketa gauzatuko den.
4. b), c), d) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak gauzatuko du behin-behineko izendatzea,

Batzar Nagusiak onartu edo ezeztatua izango dena, azken kasu honetan dagokion izendapena gauzatuko delarik.

5. Organo honetan egiten diren aldaketa guztiak Elkartearen Erregistro Orokorrari jakinarazi behar zaizkio.
6. Zuzendaritza Batzordeko kide izateko beharrezkoa izango da:
 - a) Adinduna izatea, eskubide zibilen erabilera osoa izatea eta indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun-egoeretakoren batean ere ez egotea.
 - b) Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera hautatua izatea.
 - c) Elkartekidea izatea.
7. Batzar Nagusiak hautatu ondoren, kargua onartzen duenean edo hartaz jabetzen denean bihurtuko da elkartekidea gobernu-organoko kide.

14. artikulua: Eskumenak

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak

- a) Erakundearen ohiko kudeaketa gauzatzea, Batzar Nagusiak ezarritakoaren arabera eta honen kontrolpean.
- b) Erakundeak gauzatuko dituen ekintzak programatzea
- c) Batzar Nagusiaren onespera jartzea gastuen eta sarreraren aurrekontua, aurreko urteko kontuen egoeraz gain.
- d) Batzar Nagusiko Eguneko Aztergaiaren prestaketa egitea, baita Batzar Nagusiko deialdi orokor nahiz ezohikoaren ezarpena gauzatzea.
- e) Bazkideen proposamen eta iradokizunak aintzat hartzea, hartu beharreko neurriak hartuz.
- f) Estatutuaren dauden arauak interpretatu eta egon daitezkeen hutsuneak betetzea, beti ere erakundearen inguruko legedia betez.
- g) Batzar Nagusiak, Berariazko Akordioz emandako eskumenak gauzatzea, beti ere bere erabateko eskumenak ez diren kasuetan.

15. artikulua: Bilerak eta bozketak

1. Gutxienez hiruhilabeteko bakoitzean bildu beharko dira, Presidenteak eta bere kideen erdiak eta kide bat gehiagok eskatzen duten bezain beste alditan.
2. Lehendakariak zehazten duen bezain beste alditan gauzatuko ditu Zuzendaritza Batzordeak bilkurak, bai berezko ekimenez, bai barau osatzen duten edozein kideen eskariz. Presidenteak burutua izango da, eta ez badago, presidente ordeak, egonez gero, eta biak faltaz gero, Batzordeko kide nagusienak.
3. Batzarraren erabakiak baliogarriak izateko, bildutako kideen gehiengoz onartuak izan beharko dira, kideen erdiaren gutxienezko presentzia beharrezkoa izanik. Berdinketasuertatuz gero, Presidentearen botoa izango da baliozkoa.
4. Bilkuretatik Idazkariak akta jasoko du, zeina dagokion Liburuan transkribatua izango den. Akta hau kide guztiei helarazia izango da bilkuraren gauzatzea eta bi aste epean.

16. artikulua: Presidentearen eskumenak

1. Presidenteak Elkartearen legezko ordezkaritza bere gain hartzen du, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko ditu, zeinaren lehendakaritza izango duen.
2. Presidenteari dagozkio ondorengo ahalmenak:
 - a) Zuzendaritza Batzarraren bilkurak deitzea eta bukatutzat ematea, baita Batzar Nagusietan ere. Bata zein bestearen eztabaidak zuzentzea eta berdinketa ematen den kasuetan kalitatezko botoa izatea.
 - b) Elkartearen ekintza plana Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea, eginkizunak sustatuz eta koordinatuz.
 - c) Baliotutako ordainketen abonua agintzea.
 - d) Sortu daitezkeen premiazko auziak ebaztea, Zuzendaritza Batzordeari lehen bilkuran beraren berriemanez.
 - e) Berariazko akordioz Batzar Nagusiak egilesten dizkion eskumenak gauzatzea, honen eskumen bakarrak ez diren kasuetan.

17. artikulua: Presidente Ordea. Eskumenak

Presidente Ordeak Presidente laguntzearen eginkizuna izango du, eta ordezkatzearena honek ezin duen aldietan. Horrez gain, Lehendakaritzak bere gain usten dituen ahalmenak izango ditu.

18. artikulua: Idazkaria. Eskumenak

1. Idazkariari bazkietze eskariak jaso eta bideratzea dagokio, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua eramatea, Akta liburuaren zaintza eta idazketa. Bazkide berrien kontu korrante zenbakia eta bankuko datuak diruzainari helaraziko zaizkio kuota transakzio bidez ordaindu nahi dutenen kasuan. Hala eta guztiz ere, diruzainak bazkideen erregistro propioa izan behar du gastuez informatzeko eta kuoten erreklamazioa egiteko beharrezkoa den kasuetan.
2. Elkarteen inguruan dagoen legedia betearazteaz ere arduratuko da, Elkartearen agiri ofizialak zainduz, Liburuaren eta artxiboaren edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordean egondako izendapen eta egoitza aldaketan berri emanez dagokion autoritateari.

19. artikulua: Diruzaina. Eskumenak

Diruzainak sarrera gastuen berri emango du, urteko sarrera eta gastuen aurrekontuak egingo ditu, aurreko urteko kontuenaz gain. Hauek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio honek Batzar Nagusien onarpenera jarri ditzan.

20. artikulua: Batzordekideak. Eskumenak

1. Batzordekideek Zuzendaritza Batzordeko kide bezala dagozkien betebeharrak izango dituzte, hala nola Zuzendaritza Batzordeak berak gomendatzen dituen lan ordezkaritza edo komizioetatik sortu daitezkeenak bezala.
2. Batzordekideek beren gain izango dute epe-mugarik gabe edo aldi baterako Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak esleitzen dizkieten karguen ordezkapena, baita Idazkaria lagundu edo ordezkatzera Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duen kasuetan. 12. Artikuluan ezarritako Batzarkideen kopurua handitu edo txikitu egin daiteke Ohiko Batzar Orokorra horrela ezartzen bada.

V. TITULUA. ELKARTEKIDEAK

21. artikulua: Elkartekideak. Baldintzak

1. Elkartekide izan daitezke ala nahi eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:
 - a) Adinduna edo adin txikiko emantzipatua izatea, eskubide zibilen erabilera osoa izatea eta gaitasunak mugaturik ez izatea epailearen ebazpenez.
 - b) Unibertsitatean graduatua izatea edo unibertsitateko azken urtean egotea.
 - c) Historiaurreko edo/eta Garai Historikoko Arkeologiaren inguruko dibulgazio lanean edo/eta ikertzen egotea.
 - d) Ez izatea ondorengo unibertsitate irakaskuntza kargurik: Irakasle Titularra edo Katedratikoa.
2. Pertsona juridikoak izanik dagokion organoak gauzatutako onespene idatziaren kopia aurkeztu beharko dute, zeinetan bateratze nahia adierazten duten, beraiengatik jardungo dutenen izendapenez gain.
3. Elkartekide izan nahi dutenek idatziz jakinaraziko diote Presidenteari, zeinak Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dion, onarpena edo ez onarpena erabaki dezan, Batzar Nagusiak berretsia izan behar delarik.

22. artikulua: Bazkide motak

Dauden elkarkide mota desberdinak ondorengoak dira:

- a) Bazkide Sortzaileak. Eraketa-akta baieztatzen duen bilkuran egon eta beratu sinatu eta izenpetzen duten pertsona guztiak izango dira.
- b) Kide Arruntak. Elkartea eratu ondoren sartzen diren guztiak.
- c) Bazkide Babesleak. Elkarteari batez ere diru-baliabideak edo ondareak ematen dizkioten pertsonak.
- d) Ohorezkoak: Zuzendaritza Batzordeak hala izendatutako pertsonak, elkarteren aburuz dituzten ezaugarri, meritu eta inguruabarren arabera. Ez dute bozketa eskubideri izango eta kuota ordaintzetik eta Zuzendaritza batzordeko kide hautatuak izatetik salbuetsiak daude.

23. artikulua: Bazkideak. Eskubideak

Bazkide den orok eskubidea dauka:

- a) Elkarteen Legearen edo Estatutuen aurkakoak diren erabaki eta ekintzak ihardestea, 40 egutegiko egunen epean, auzi-jartzaileak ihardesten duen akordioaren berri jakin, edo jakiteko aukera, izan duenetik hasita.
- b) Elkarteren gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakeraren gaineko informazioa, bai eta haien jardueraren nondik norakoei eta kontuen egoerari buruzkoa ere, jasotzeko.
- c) Elkarteko gainontzeko kideen identitatea edozein momentutan jakitea, sarrera eta gastuen nondik norakoak jakitea, eta jardueren garapenaren ingurukoa, datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako moduan.
- d) Batzar Nagusietara deituak izateko, bilkurotara joatea eta horko eztabaidetan hizpide eta hautespidearekin parte hartzeko, bere ordezkaritza beste kide bati emateko aukera izanez.
- e) Elkarteren zuzendaritza organoetan parte hartzea estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera, aukeratzailerik eta aukeratu izanez.
- f) Bazkideen artxibategian azaltzea indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera eta Elkarteren ikurra erabiltzea dagoen kasuetan.

- g) Estatutuen, eta dagoen kasuetan Barne Araudiaren, kopia bat izatea eta zuzendaritza organoei eskaera eta kexak aurkezteko aukera.
- h) Elkartearen ekintza kolektiboetan parte hartzea eta bazkideei dagozkien elementuen onura izatea (egoitza, liburutegia...).
- i) Haien aurkako zehapen-neurririk hartu aurretik idatziz entzunak izateko, bai eta neurri horiek hartzeko bidea eman duten egintzen berri jasotzeko ere. Zehapenik ezarriz gero, zehapen hori ezartzeko erabakiak arrazoitua izan behar du.
- j) Elkartean edozein unetan baja hartzeko, hartutako eta bete gabeko konpromisoak betetzekotan betiere.

24. artikulua: Elkartekideak. Eginbeharrak

Elkartekideen eginbeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen xedeak bere egitea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Estutuen arabera elkarkide bakoitzak ordaindu behar dituen kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutueta xedatutakotik elkartekideari dagozkion gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko gobernu-organoei balio duen eran hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.

25. artikulua: Elkartekideak. Bajak

Elkartekide izaera galtzea ekarriko luketen kasuak:

- a) Heriotzagatik edo, egotekotan, pertsona juridikoen disoluzioengatik.
- b) Boluntarioki uztea.
- c) Santzio batek eragindako utzaraztea, ondorengo arrazoiengatik: Estatutuen betebeharren edo Zuzendaritza Batzordeak nahiz Batzar Nagusiak onetsitako akordioen ez betetze larriak, errepikatuak eta jakinaren gainean burututakoak.

26. artikulua: Elkartekideak. Diziplinazko Erregimena

1. Zuzendaritza Batzordeak elkartekideak zigor ditzake Estatutuen edo Batzar Nagusiaren nahiz Zuzendaritza Batzordearen akordioen hauste errepikatuengatik.
2. Zigorak 15 egunetik hilabete batera luzatu daitekeen eskubideen suspentsioa edo behin betiko utzaraztea izan daiteke hurrengo puntuetan ezarritako terminoei jarraituz. Horretarako, Presidentetzak zigorgarri izan daitezkeen jarrerak argitzeko ikerketa bat zabaltzea erabaki dezake. Organo-instruktoarea izanda, honen arduradura Idazkaria izango da eta honek proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari dagozkion neurriak hartzea.
3. Zehapenen inposaketa Zuzendaritza Batzordearen ahalmena da, Idazkariak (organo-instruktoarea izanda), ez du parte hartuko eta interesdunari entzun behar zaio beti zehapenik ezarri aurretik. Hau bete ezean, errekurtsioa aurkez daiteke Batzar Nagusian.
4. Elkartekide batek Estatutuen betebeharren edota Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak balio duen eran hartutako erabakiak modu errepikatuan eta jakinaren gainean ez betetzeagatik elkartea utzarazteko prozesuan egotekotan, Presidentziak Idazkariari zenbait eginbide eska diezaioke aurretik beharrezkoa den informazioa lortzeko eta jokabidea artxibatu edo utzarazte zehapen espedientea ireki.
5. Utzarazte zehapen espedientea irekitzekotan eta gertaerak egiaztatu ostean, Idazkariak interesdunari eskutitz bat bidali behar dio leporatzen zaizkion karguak adieraziz. Honek, hamabost eguneko epean erantzun dezake bere burua defendatzeko egoki deritzon alegatuekin. Epea amaituta, gaia Zuzendaritza Batzordearen gai-zerrendan gehituko da eta honek, dagokiona erabakiko du betiere, Idazkariaren botorik gabe espediente bideratzailetzat jotzeko.

6. Utzarazte akordioa interesdunari jakinaraztean horren kontra Batzar Nagusian errekurtsioa aurkez dezakeela. Hiru hilabeteko epean Batzar Nagusirik ez deitezketan, Ez Ohiko Batzorde Nagusia deitu beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erruztatutako pertsonaren elkartekide eskubideak bertan behera utz ditzake eta Zuzendaritza Batzordeko parte izatekotan, bere karguaren suspentsioa dekretatu beharko du.
7. Utzarazte espedientea Batzar Nagusira heltzekotan, Idazkariak espedientearen laburpen bat eta Zuzendaritza Batzordeak erruztatutako pertsonak aurkeztutako idatzia eman beharko diote Batzar Nagusiari, horrela, dagokion akordioa har dezan.
8. Utzarazte akordioa, betiere arrazoitua izan behar dena, interesdun pertsonari jakinarazi beharko zaio eta honek, Tribunaletara errekurritu dezake bere eskubideei jarraituz, akordioa Legearen edo Estatutuen kontra egiten duela uste badu.
9. Elkartearen utzaraztea jakinaraztean, bai modu boluntarioan bai zehazpen baten ondorioz, egotekotan, amaitu gabeko betebeharrak betetzea eskatuko zaio.

VI. TITULUA. EKONOMIA ETA ONDARE ARAUBIDEA

27. artikulua: Ondarea

Elkarteak ez du hasierako ondarerik ezta hasierako funts-sozialik ere.

28. artikulua: Diru-sarrerak

1. Elkareak bere jarduera sozialen garapenerako aurreikusitako ekonomia-baliabideak ondorengoak dira:
 - a) Hasierako kuotak.
 - b) Adostutako aldi behingo kuotak.
 - c) Dagokion ondasunen eta eskubideen emaitzak, subentzioak, legatuak eta legalki jaso daitezkeen dohaintzak.
 - d) Elkarateak, Zuzendaritza Batzordeak aurrera eramatea adostutako zilegizko ekintzen bidez lortutako diru-sarrerak, betiere Estatutuen helburuen barne.
2. Elkarateak jarduera ekonomikoak – zerbitzu-emateak barne – egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez elkartekideen artean, ez horien ezkontideen edo elkartekideekin ezkontzaren antzeko harreman afektibo tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinok ezin zaizkie doan utzi irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

29. artikulua: Kuotak

Ohiko eta ez ohiko kuotak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuak, Batzar Nagusiak ezarriko ditu eta ez dira inola ere itzuliko.

30. artikulua: Dokumentuen eta kontabilitatearen inguruko betebeharrak

1. Elkarateak bere elkartekideen zerrenda eguneratua eduki eta elkarateak duen ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela emateko balio duen kontabilitatea eraman behar du. Honez gain, burututako ekintzen eta ondasunen zerrenda eta bere gobernu organoen eta ordezkariaren bilerak jasotzen dituen akta liburua eduki behar du. Kontabilitatea dagokion arau zehatzei jarraituz eraman behar da.
2. Elkartearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urte bat iraungo du eta bere itxiera data martxoaren 1a izango da urtero.

VII. TITULUA. ESTATUTUENALDAKETA

31. artikulua: Estatutualdaketa

1. Estatutuen aldaketa helburu horretarako berariaz antolatuko den Batzar Nagusi Berezian erabakiko da. Zuzendaritza Batzordeak hiru elkartekideek osatutako Ponentzia izendatuko du, bere ildoetara jarraituz, berak ezarritako epe batean aldaketa proiektua idatz dezan.
2. Behin aldaketa proiektua ezarritako epean idatzita, Presidenteak hurrengo Zuzendaritza Batzordeko gai-zerrendan gehituko du eta bertan onartuko da edo Ponentziari itzuliko da berriz azter dezan.
3. Batzar deialdiari Estatutuen aldaketaren testua erantsiko zaio elkartekideek Idazkariari dagozkien zuzenketak bidal diezaioten. Zuzenketa hauek Batzar Nagusian aurkeztuko dira bakarrik baldin eta bilera ospatu baino zortzi egun lehenago Idazkaritzaren esku egon badira.
4. Zuzenketak indibidualki edo kolektiboki egin daitezke, idatziz eta beste testu baten alternatiba aurkeztuko dute. Zuzenketa bozketa ostean, Batzar Nagusiak Estatutu aldaketan akordioa hartuko du baina, hirugarrenei dagokienez, ondorioak Elkartearen Erregistro Orokorrean izen ematen den unetik aurrera bakarrik izango ditu.

VIII. TITULUA. ELKARTEAREN DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

32. artikulua: Desegitea

Elkartea desegingo da:

- a) Elkartekideen borondate hutsa, Batzar Nagusiak hartutako erabakiaren bidez adierazia.
- b) Estatutuetan ezartzen den epea edo baldintza bete izana.
- c) Beste elkarte batek xurgatzea edo beste elkarte batzuekin bat egitea.
- d) Legez ezartzen den gutxieneko elkartekide kopurua ez izatea.
- e) Elkartea desegitea erabakitzen duen ebazpen judizial irmoa.
- f) Elkartearen xedeak betetzeko ezintasuna.

33. artikulua: Likidazioa

1. Elkartea desegitekotan, hau erabakitako Batzar Nagusi Berezia berak, Zuzendaritza Batzordeko kide diren hiru pertsonaz osatutako Likidazio Batzordea izendatuko du eta honek dauden fondoetako arduraren hartuko du.
2. Behin elkartekideen eta hirugarrenekin dauden betebeharrak sozialak asetuta, soberako ondarea, egotekotan, irabazi-asmorik gabeko helburuei edo irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emango zaio.

IX.TITULUA. ARKEOGAZTE: HISTORIAURRE ETA GARAI HISTORIKOKO IKERTZAILE GAZTEEN ELKARTEAREN SEXU- EDO SEXUAGATIKO JAZARPENEN, ABUSUEN ETA ERASOEN PREBENTZIORAKO ZEIN HORIEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

34. artikulua: Asmoen adierazpena

Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarte arkeologian diharduten ikerlariak osatutako elkarte da, heziketa eta lan egoera desberdinetan daudenak. Arkeologian, gizarteko gainontzeko arlotan gertatzen den bezala, portaera, jarrera eta estereotipo matxistak aurki ditzakegu. Horiek eragin zuzena dute bai kultura materialaren bidez sortzen ditugun diskurtsoetan, bai lan arloan eta esparru akademikoan. Hauek modu ezberdinetan plazaratzen dira: portaera sexistak, sexu- eta sexuagatiko jazarpenak eta eraso sexualak.

Elkartearen helburuetako bat, geure estatutuetan biltzen den bezala (2. artikulua, 1g puntua), geure ogibidean berdintasuna sustatzea da. Hortaz, dokumentu honen xedea helburu hori betetzea da. Batetik, Elkarteari jarrera matxista gabeko arkeologiaren alde lan egiteko oinarriak eskaini, eta bestetik, kideek, euren arkeologia lanetan daudelarik eta edozein lan arlo edota esparru akademikotan, burutu/jasan ditzaketan jazarpenei eta erasoei erantzun emateko aukera eskaintzen digu protokoloak. Prozesu honetan *Emakunderen* lankidetzeta eta aholkularitza jaso ditugu. Halaber, beste erakunde publiko batzuek eginiko protokoloak hartu ditugu aintzat; *UPV/EHU*ko protokoloa, kasu.

Dokumentu hau 2018ko urriaren 2an Asanbladan onetsia izan ostean, Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarteko estatutuaren eranskinetara gehitu da. Beraz, aurrerantzean egungo zein etorkizuneko kideak jakinaren gainean egongo dira. Kideak, orobat, protokoloaren ezarketaren alde lan egitearekin batera, bere aplikaziotik eratorritako neurriei men egingo dietela berresten dute.

35. artikulua: Batzorde Feminista

2018ko uztailaren 13an, zenbait kideren proposamenaren ondorioz eta Batzorde Koordinatzailea bildurik, Batzorde Feminista eratu zen, arkeologiaren baitan eta bereziki elkartean eman daitezkeen jazarpen eta erasoei erantzuna emateko asmoz. Batzorde honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, eranskinei gehituko zaien dokumentu honen idazketa eta bestetik, bere edukia sustatu, hedatu eta bete egingo dela ziurtatzea.

Batzorde Feminista Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarteko behin betiko batzordea da. Batzordeak izaera ez mixtoa dauka eta Asanbladan adieraziz gero Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarteko edozein kidek har dezake parte. Urtean behin Batzorde Feminista osatzen duten kideen berri emango da (ahal bada urteroko iraileko ohiko batzarrean) eta nahi adina bil liteke. Era berean, urtean behin, edo beharrezko den guztietan, Batzorde Feministak arkeologian eta Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen barruan eman diren sexu- edo sexuagatiko jazarpenen, abusuen eta erasoen inguruko txosten bat prestatuko du. Emaizta horiek ekaineko ohiko Asanbladan aurkeztuko dira urtero.

36. artikulua: Definizioak

Atal honetan Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearentzat onartezinak diren jokabideak eta portaerak biltzen dira. Definizio hauek, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan oinarritzen dira.

Jazarpen sexuala: Pertsonaren duintasunaren aurka joatea helburu duen edota horren kontra doan egitasmo sexualeko edozein aipamen edota jokabide fisiko, eta bereziki giro bortitza,

laidogarria eta iraingarria sortzen dutenak. Jazarpen sexualaren barruan aipatzekoak dira

desiratuak ez diren deklarazio sexualak, arreta pertsonala edota kontaktu fisikoak edo sexualak.

Sexuagatiko jazarpenak: Pertsonaren sexuan oinarrituriko edozein jokabide, zeinak pertsonaren duintasunaren kontra joatea helburu/eragiten baituen eta giro bortitza, laidogarria eta iraingarria sortzen duenak.

37. artikulua: Faltak

Puntu honetan Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen baitan edo bere jarduerak garatzen dituen espazioetan (indusketa arkeologikoetan, biltzar zientifikoak, unibertsitatean...) jaso litezkeen jazarpen, abusu edota eraso kasu desberdinak zerrendatzen dira. Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarreak ez ditu jarrera horiek onartuko eta hoben larrizat edo oso larrizat hartuko ditu.

37.1. artikulua. Sexu- edo sexuagatiko jazarpena

1. Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarreak ez du onartuko sexu- edo sexuagatiko, orientazio edo identitate sexualaren eta genero adierazpenaren kontrako jazarpenik horiek gertakari larrizat hartzen baititu. Era berean, onartezina izango da kide batek beste kide, ikasle, ikerle edo langilek jasan dezakeen gabezi fisikoaz, psikikoaz edo sensorialaz (behin behinekoa nahiz behin betikoa - osasun arazoan, arazo pertsonalen edo beste edozein egoeraren ondorioz emandakoa) baliatzea jazarpen horiek burutzeko. Jokabide horiek errepikatzea edo pertsona bat baina gehiago jazarri izana, larrigarritzat joko da. Ondoko jarrerak jazarpen sexualaren adibide konkretutzat ditu Elkarreak:

A. Lan/ikasketa giroaren edota bertan diharduten pertsonen sexualizazioa. Intimitate sexualaren inbasioa.

- a) Keinu, soinu edo mugimendu lizunak egitea.
- b) Pertsona beraren edo hirugarrenen bizitza sexualaren inguruko galderak burutzea.
- c) Iradokizun sexualak egitea, hirugarren pertsonak barne.
- d) Pertsona baten bizitza sexualaren inguruko zurrumurruak zabaltzea.
- e) Sexuaren ikuspegitik laidogarriak, iradokitzaileak edo pornografikoak, diren irudi/bideoen erabilera.

B. Jazarpen sexuala.

- a) Desiratu gabeko edo beharrezkoak ez diren kontaktu fisiko zein hurreratzeak.
- b) Jite sexualeko deiak, mezuak, mezu elektronikoak, eta abar.
- c) Harreman sexualak izatera hertsatzea edo derrigortzea, horiek burutu ala ez.
- d) Salatzailearen edota hirugarrenen (azken batean, jazarpen edo eraso sexualen aurka doazen) kontrako errepresaliak egongo direnaren mehatxuak edo errepresaliak egotea.
- e) Ezezkoa jaso arren, edo modu argian baiezkoa jaso ez bada ere, modu errepikakorrean hitzordua izateko proposamena egitea.
- f) Isilpeko zelata.
- g) Izaera sexualeko, orientazio sexualaren inguruko, norbaiten itxura fisikoari buruzko aipamenak burutzea.

2. Onartezina izango da, orobat, kideak euren nagusitasun hierarkikoaz baliatzea beste pertsona bat jazaritzeko. Jazarleak maila berbera edo mendeko maila duen kasuetan ere gaitzetsi egingo da bere jokabidea. Katetoria honen barruan honakoak biltzen dira:

A. Xantaia sexuala (jazarpen sexuala):

- a) Proposamen sexualak onartuz gero, elkartean, lanean edo heziketa arkeologikoaren esparruan estatus zein tratu hobea eskuratuko denaren iradokizuna edo eskaintza burutzea.

b) Proposamen sexualak onartu ez izategatik, eta errepresalia moduan, lan okerragoak esleitzea.

B. Pertsona baten gaitasunak gutxiestea (sexuagatiko jazarpena):

- a) Pertsonaren sexuaren arabera, bere ekarpen, aipamen edo ekintzen aurrean ez entzunarena egitea edota horiek deskalifikatzea.
- b) Estatus hierarkiko handiagoa duten emakumeen aginduei edo jarraibideei men ez egitea.
- c) Pertsonaren sexuagatik bere benetako gaitasunekin bat ez datozen lan edota eginkizun kaskarragoen esleitzea.
- d) Pertsonaren sexuagatik bere lana zapuztea eta beharrezko dituen baliabideetara heltzea galaraztea.
- e) Pertsonaren beraren sexuan oinarrituriko mandatu laidogarriak ematea.
- f) Pertsonaren sexua dela medio, burutzen duen lanaren gaineko gehiegizko kontrola zein, bere gaitasunak zalantzan jartzea.
- g) Beste jarrera diskriminatzaileak.

C. Sexuagatiko jazarpenen beste adibide batzuk:

- a) Sexuagatiko ahalmenak, gaitasunak eta trebeziak gutxiesten dituzten esapide matxista edo iraingarriak dituen hizkera sexistaren erabilera.
- b) Pertsona baten generoaren, sexuaren edo sexualitatearen inguruan humore sexista edo laidogarria egitea.
- c) Beste sexuari tradizionalki ebatzitako eginbeharrak gain hartzeagatik irrigarri uztea.
- d) Sexuaren arabera, zentzu baikor zein ezkorrean, tratu paternalista, infantilizatzailea edo ezberdina ezartzea.
- e) Pertsona baten eta haren lanaren edo gaitasunen ospe kentze pribatu zein publikoa.
- f) Pertsona baten egiazko balioa eta prestakuntza zalantzan jartzea bere esleitzea, aukeraketa edo kontratazioa interes edota mesede sexualen ondorioz eman dela iradokiz edo baieztatuz.

37.2. artikulua. Sexu abusua

Kode Penalari dagokionez, sexu abusua pertsona batek edo batzuek bigarren baten kontra (erabat ezindurik ez badago ere, desabantaila egoeran dagoena) burutu ditzaketen abusu mota guztiak lirateke. Delitu honetan biolentzia fisikorik erabiltzen ez den arren, erasotzaileak trikimailuak, manipulazioa, hertsapena edo bat-bateko erasoak erabiltzen ditu. Zenbaitetan, eta desabantaila egoeraren ondorioz, erasoturiko pertsonak harreman sexualak onar ditzake biolentzia fisikoa pairatuko duenaren beldurrez. Egungo legediak bereizketa ezarri arren, Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen aburuz honakoak ere sexu erasoak dira.

37.3. artikulua. Bortxaketa edo sexu erasoak

Kode Penalaren 178. artikuluan biltzen denez, pertsonen sexu askatasunaren kontra doan atentatutzat hartuko dira sexu erasoak. Kode berberaren 179. artikuluan, biolentzia edota hertsapena dauden heinean, bortxaketa sexu askatasunaren kontra doan ekintzarik larriena dela adierazten da.

Bortxaketa, larderia zein biolentzia bidez eta erasotuaren desioen kontra burututako harreman sexuala da. Erasotuak ezin du bere burua babestu baliabide faltagatik edo erabakiak hartzeko ezgaitzen duen sustantziak (erosatzaileak emandakoak edo berak modu boluntarioan hartutakoak) hartu izanagatik. Bortxaketan bagina-, aho- edota uzki-penetrazioa ematen da. Penetrazioa ez da zertan organu genitalekin eginikoa izan behar, gorputzeko beste atalekin edo objektuekin ere burutu liteke. Kasu guztietan eraso baten aurrean gaude, kontaktu fisikoa inplizituki daraman biolentzia baita. Erasotzaileak honako jarrera dauka bere sexu-grina asebetetzeko edo erasotua menperatzeko gai dela erakutsarazteko.

Beharrezkoak ez diren edo desiratuak ez diren ukitu eta urreratzeak ere sexu erasotzat hartzen ditu Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarteak.

37.4. artikulua. Salatzailearen aurkako mehatxu eta xantaiak

Toleraezinak izango dira erasotzaileak osorik ateratzea helburu duten ekintza, bide edo forma orok. Horregatik, jazarleak salaketa ekiditeko burututako edozein xantai edo mehatxu larrigarritzat hartuko da. Ez da onartuko, orobat, salatzailearen beraren edo bere inguruaren (familia, lagunak eta prozesuan parte hartzen duen edonor) kontrako, eta prozesua geldiarazteko xedeaz, larderiarik edo mehatxurik. Mehatxu edo xantai horiek honela adieraz litezke:

- a) Jazarpena/erasoa jasan duen pertsonaren testigantza baliokidea eta sinesgarritasuna zalantzan jarritz.
- b) Izaera pertsonaleko elkarrizketa, argazki edota beste edozein dokumentu argitaratuko direnaren mehatxuaz.
- c) Sare sozialetan, lanean edo beste edozein arlotan, eta bere duintasuna zein ospea zalantzan jarritz, salatzailea oldartzea edo difamatzea
- d) Batzorde Feministaren inpartzialtasuna zalantzan jarrita.

37.5. artikulua. Esku-hartze eza edo laguntza ukapena

Onartezina izango da kideek, modu zuzen edo ez-zuzenean, jazarleekin edo erasotzaileekin bat egitea. Erasoa jasan duenaren alde ez egitea, hortaz, hobentzat hartuko da. Jarraian, esku-hartze ezaren edo laguntza ukatzearen zenbait adibide plazaratzen dira:

- a) Jazarpenaren edo erasoaren berri izanik, laguntza edo aholkua ez eskaintzea.
- b) Erasoa jasan duen pertsonaren beraren ahotik berri izanda, jazarpena edo eraso salatu ez dezan iradokitzea.
- c) Jazarpena edo eraso salatu ez dezan, salatzailearen beraren edo bere inguruaren (familia, lagunak eta prozesuan parte hartzen duen edonor) kontrako larderia edo mehatxuak burutzea.
- d) Salatutako gertaerei pisua kentzea edo gutxiestea.

38. artikulua: Jardunbidea

Arkeologiarekin (lan- nahiz heziketa-arloarekin) erlazioa duen pertsona orok, Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen kide izan ala ez, edozein sexu-edota sexuagatik jazarpen zein sexu eraso sala dezake Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen Batzorde Feministaren aurrean. Prozedura abiaraztea Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen baitan dagoen Batzorde Feministaren ardura izango da eta honako bermeak eta hastapenak aintzat hartuko ditu:

- Inplikaturako pertsonen intimitatearen eta duintasunaren errespetua eta babesa.
- Isilpekotasuna.
- Arintasuna.
- Alderdikeri eza: Begirunezko harremana eta fede oneko tratua.
- Berkibtimizaziorik ez: Gertakarien kontakizunaren errepikapena, ezinbesteko ez bada, saihestu egingo da.
- Biktimaren edota lekukoen (ikerketan agertzea burutu ezker) kontrako errepresalien debekua.

Batzorde Feministako bi kideren ardura izango da aurrez aurre edo posta elektronikoz grace.arkeogazte@gmail.com helbidera irits daitezkeen kexen edota salaketan kudeaketa. Eurek Batzorde Feministari biltzeko deia egingo diote, zeinak, prozedura abiaraziz eta berme guztiak betez zein jasotako informazioa balioztatuz, honako bi ebazpenak burutu baititzakeen:

- A. Kexa edo salaketa ez onartzea. Interesaturako pertsonari berri emango zaio.

B. Kexa edo salaketa onartzea. Gertakarien testuingurua eta zein baldintzatan eman diren aintzat hartuko dira prozedura hasterakoan.

a) *UPV/EHU*ko ardurapeko heziketa testuinguruan jazo bada, salatzaileari *UPV/EHU*ko protokoloaren berri eman, eta prozesu guztian zehar Elkarte aldeko izango du.

b) Erasoa Elkartearen jarduketa ekimenetik at ematen bada, zein protokolo edota Erakundearengan jo behar duenaren berri emango zaio salatzaileari. Kasu honetan ere, Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarte aldeko izango du.

c) Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearen baitan gertatu bada, Batzorde Feministaren ardura izango da salatzailearen, salatuaren zein lekukoaren (egotekotan) testigantzak eta eskuragarri dagoen dokumentazioa biltzea. Batzorde Feministaren erantzukizun izango protokolo hurrengo puntuan zehazten diren zigorretako bat ezartzea, hala badagokio.

Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkartearengana jotzeak ez ditu baliogabetzen salatzaileak burutu ditzakeen akzio legalak. Era berean, elkarteak bere babesa eskainiko die prozedura horietan guztietan.

39. artikulua: Zehapenak

Erasotzailea edo jazarlea Arkeogazte: historiaurre eta garai historikoko ikertzaile gazteen elkarteko kide baldin bada, honako zigorrak jaso ditzake:

Hoben larria egiteagatik: Soilik sexuagatiko jazarpena ematen den kasuetan ezarriko da eta Batzorde Feministaren ohartarazpena jasoko du. Bigarren hoben larria eginez gero, zuzenean hoben oso larritzat joko da.

Hoben oso larriak egiteagatik: Aurretik bildutako gainontzeko kasu guztiak eta sexu arrazoigatiko zenbait kasutan beharrezko dela ikusiz gero. Elkarteko estatutuak bete ez izanagatik kidea behin betiko kanporatuko da. Batzorde Feministak proposamen bidezkotua aurkeztu beharko du Asanbladaren aurrean, azken honek kanporatzea berretsi dezan. Kasuotan, Asanblada ez-ohiko eta premiazko bileran batuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan agertzen diren Zuzendaritza Batzordearen behin behineko kideak ospatutako lehen Batzar Nagusian onetsiak izan beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Nagusiak Barne-Araubideko Erregimena onartu dezake Estatutu hauen garapen bezala baina honek ez du inola ere hemen agindutakoa aldatuko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 4 (e)an